

GRISELE

Testua: ANKE DE VRIES

Irudiak: WILLEMEN MIN

Itzulpena: EVA LINAZASORO

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 22 cm. 32 or. 13 €.

Grisele (euskara)

ISBN 978-84-9172-193-2. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

Grisele (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-284-8. Obras de autor. Primeros lectores.

Grisele (galegoa)

ISBN 978-84-8464-293-0. Demademora.

Grisele (katalana)

ISBN 978-84-16804-07-8. Obres d'autor. Primers lectors.

Grisele (portugesara)

ISBN 978-989-749-075-0. Obras de autor. Primeiros leitores.

*Egun batean Grisele oso triste sentitu zen,
bere larru grisa bezain triste.*

Asperturik zegoen eta bakar-bakarrik.

Pintura gorriko pote bat hartu eta esan zuen:

*«Gorritz margotzen badut nire burua,
ziurrenik ni ere alaituko naiz»[...]*

Grisele, norbera izatearen garrantziari buruzko gaur egungo alegia da, norik bere akats eta bertuteak onartzeari buruzkoa. Bere itxurarekin gaizki sentitzen denean, sagutxo protagonista bere burua hainbat koloretan margotzen saiatzen da, baina, ez gorritz, ez horiz, ez berdez, ez marrekin, ez eta loreekin ere ez du aldaketarik sentitzen. Beste animalien isekak eta arbuioek areagotu egiten dute bere tristezia. Harik eta ezusteko baten ondorioz uretan sartzen den arte...

Lehen irakurleei zuzendutako istorio simple honetan nabarmentzekoa da, halaber, aldarteen eta emozioen arteko kontrastea, irakurlearen enpatia eta elkartasuna sortuz. Irudiaren eta itxuren menpeko den gaur egungo gizartean, ipuin honek autoestimua eta adiskidetasuna bezalako errefortzu positiboak bultzatzen ditu azalekotasunaren gainetik. Testua atzealde garbietan nabarmentzen diren irudi espresiboek laguntzen dute. Ikusizko konposizioak, kolorea lapitzaren eta paperezko aplikazioekin konbinatzen du, collage gisa.



Grisele

Anke de Vries Willemien Min



- **Gaia:** norberaren nortasuna aurkitzeari buruzko gaur egungo alegia; autoestimua.
- **Adin egokia:** hiru urtetik gora; lehen irakurleak.
- **Nabarmentzekoa:** elkarbizitza, gizartea; animaliak, natura; koloreak, emozioak et aldarteak: alaitasuna, tristezia; adiskidetasuna.
- **Liburuaren aurrerapena:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/grisele-eusk>

Anke de Vries

(Sellingen, Holanda, 1936)

1972an bere idazle ibilbidea hasi zuenetik, 80tik gora haur-liburu argitaratu ditu, bai eta hainbat sari irabazi ere. Horien artean: Zilarrezko Lapitza (Holandako Literatur Sari Nazionala) eta Gazte Literaturako Sari Europarreko Ohorezko Zerrendako aipamen bat. Beste herrialde batzuen artean, Grezian, Frantzia eta Pakistanen bizi izan da.

Willemien Min

(Bergen, Holanda, 1956)

Amsterdameko Gerrit Rietveld Arte Akademian ikasi zuen. Maastricht-eko Arte Bisualetako Akademiako irakasle da, eta Barefoot eta Lemniscaat bezalako argitaletxeetarako hainbat haur-liburu irudiztatu ditu. Bratislavako Ilustrazio Bienalean sariztatua izan zen eta Holandako Urrezko Pintzela ere irabazi du.

www. **Kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**.com
etxea
soltxate@pamiela.com

